


BERRIGARA

2. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, uztailak 5



Fran Iturbe

Musikaz blai



CITROËN

ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27

Ezagutu ezazu gertutik **CITROËN SAXO** berria.

MERKATURATZE ESKAINTZA BEREZIA!!

Orain diesel eta gasolinan.



Aukera handia
eskuko kotxeetan.

Erantzizko eskaintza
naregabek.



LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 7
Telefonoa: 76 31 71

Abuztuko ordutegia

Goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte jarraian

Abuztuaren 15etik 26ra itxita

SOLARIUMeko ESKAINTZA BEREZIA



VENTANAS SAN MIGUEL

Ventanas San Miguelekin...
denean irabaziko duzu.


Erosotasunean irabaziko duzu.

Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21



*Etonki guera!
Denean irabaziko duzu.*

BERRIGARA

BERRIGARA JAUREGIA
48100 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Alex Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Agustín Elkoroberezar

Agustín Larrañaga

Maketazioa:

Alex Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Harpi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Agustín Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

Komikiak:

Aitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugaldé

Alex Azkarate

Banaketa:

Manbangorri taldea

Tirada:

1000 ale.

Aprimategia:

Berri Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

ISSN 1135-5019

ISSN: 1135-5019

1135-5019

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

AINHOA ARBELAITZ

Xipizaro ludotekakoa

- Astelehenean udalekuak jarri ziren martxan. Zenbat gaztetxo-ekin ari zarete lanean?

- Aurten 345 neska-mutil etorri dira, guztiak 3 urtetik 13 urtera bitartekoak. Esan behar da gehienak 3-6 urte bitarteko haurrak direla, 188 gutxira. Eurekin, uztailaren 30era arte, 33 monitore eta 2 koordinatzaile izango gara lanean Aranzadi Ikastolan (Poligonoan) eta San Martin ikastetxean.

- Zein da udalekuen helburua?

- Ba neska-mutikoen, euskara landuaz, ahalik eta ondoen pasatzea. Horretarako iharduera ezberdinak egiten ditugu: jokoak, irteerak (eguraldi ona egiten duenean), eta-



bar. Astelehenean ere San Fermin eguna ospatzeko kalera irtengo gara.

- Beste nobedaderik bai?

- Aurten, nobedade bezala, udaleku berezia antolatu dugu OHOk 6., 7. eta 8. mailako ikasleentzat. Uztailaren 15etik aurrera, astebete Bergaran egingo dugu eta hurrengo astea Urdirozeko udalekuan igaroko dugu.

"Udalekuen helburua neska-mutilek, euskara landuaz, primeran pasatzea da"

I T U R R I O N E T I K

Taun-Taun taldearen lan berria urrirako prest izango da

Taun-Taun txotxongilo taldea bere azken lana prestatzen ari da egunotan Komenioko lokalean. Taun-Taunek Alfred Jarrik orain 100 bat urte idatzitako "Ubu kateatua" lanean oinarritu da bere azken muntaia egiteko eta lan horren emaitza "Ubu babel" izeneko ikuskizuna izango da. Joan Baixas katalanak egingo ditu zuzendari lanak eta lan honetan Taun-Tauneko 5 aktore manipulatzailek hartuko dute parte. Estreinua urriaren erdialdean egingo dela espero da. Aurretik, Jardunen laguntzaz, lan honen aurre-estreinaldia egingo da Kartzelan. Taun-Taunen azken lanak "Taun-Taun Show" eta "Makinatu" izan dira.

E S A N
D U T E

"San Juanetako pelota partiduan Joseba Askasibarren ezkerrek lurjota laga ninduen. 22 eta 20 irabazi zidan.

Denbora dexente darama entrenatzen eta bere hobekuntza nabaria da. Pelotari haundia izan da eta da Joseba. Bere garai onenenetan afizionatuetan jokatu zuen eta beti geratzen da zerbait...

Reyes Azkoitiak ere guztia ematen du, nahiz eta exhibizio partidua izan. Pelota ariman darama eta ez du txantxarik onartzen. Hutsean lagatzeko aukera badu, hutsean lagako zaitu. Hala ere, 43 urterekin, zertxobait jeitsi dela esango nuke. Baina ni izugarri apreziatzen dut, emakume zoragarria da"


"TXIKITO DE BENERAS"

Arrasateko pelotaria
EL DIARIO VASCO

"Finalean ondo egongo naiz. Egia esan, larunbatean ez nintzen batere gustora ibili"

AITOR ELKORO

Pelotaria
EL DIARIO VASCO



PRISIONEROS DEL CIELO

Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).



San Martzial Txiki

eguna ospatuko dute Musika Eskolako ikasleek igandean.

11etan igoera izango da, 12etan lehiaketak (toka, igela, kartak...) jokatu dira eta ordubatean *Festara* eskeiniko da kantinan. Jarraian bazkaria,

4retan tute eta mus txapelketako finalak, 5etan kantu lehiaketa, 7etan merienda eta 8etan jeitsiera.



Zinea

Phil Joanou

zuzendariaren (*El clan de los irlandeses*) filme honetan **Alec Baldwin** (*La huida*), **Mary Stuart Masterson** (*Tomates verdes fritos*), **Kelly Lynch** (*Drugstore cowboy*) eta **Eric Roberts** (Juliaren anaia, *Analisis final*) aktoreak dira protagonista nagusiak. Hilketa batean murgildurik dagoen *Dave Robicheaux* (**Baldwin**) detektibeak kontu haundiz ibili beharko da bere konfiantza izango duen emakume bat aukeratzeko orduan...

San Kristobal

auzoko jaiak asteartean, hilak 9, hasiko dira. Gaueko 10etan ohizko pinua jarriko da etxaflero jaurtiketa eta kanpai hotsez lagunduta eta jarraian auzoko gazteentzat txokolotada izango da. Asteazkenean, berriz, 12etan meza, ondoren kotxeen bedeinkapena eta 22:30etan Hator taldearekin dantzaldia.

Deiak

▼ **Erakusketa.** VI. Kirol argazkien lehiaketako lanik onenak izango dira ikusgai Kultur Etxean igandera arte. Astebukaeran 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Santi Arrietaren** eskultura eta zeramika erakusketa Ondarroako Udal erakusketa aretoan uztailearen 14ra arte.

▼ **Komiki lehiaketa.** Baleike Zumaiako herri aldizkariak "II. Baleike Komiki Lehiaketa" deituko du. Lanak aurkezteko epea uztailearen 30ean bukatzen da. Argibideak 86 10 56 telefono zenbakian.

▼ **Argazki lehiaketa.** Arrasateko Udalak eta Asa taldeak "Gazteak eta intsumisioa VII. argazki lehiaketa" deituko dute. Informazioa eta argibideak 77 00 65 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 7:** Bolintxo.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 5:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 6:** Camacho.
- ▼ **Domeka 7:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 8:** Puy.
- ▼ **Martitzena 9:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 10:** Estella.
- ▼ **Eguena 11:** Mozos.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Zapatuan In fraganti

Antzerki talde ospetsuaren azken lana Novedadesen

In fraganti antzerki taldeak "Hamaika trikimailu" lana eskeiniko du bihar larunbata gaueko 10 terdietan Novedades aretoan.

In fraganti taldeak Eugène Labiche (1815-1888) idazlearen lana egokitu du oraingoan. Edi Naudo In fraganti taldeko zuzendariak aipatzen duen moduan, "Labicheren antzezlanak pokerreko mahaian baten tankerakoak dira, bertan trikimailu guztiak dira zilegi, ikusten ez diren bitartean noski. Jokalarien atzean ezarri eta leku pribilegiatu horretatik joku eta tranpak ikustera gonbidatzen gaitu Labichek. Azken finean, guk jokoan konfidente gisa parte hartzea nahi du, berak gizakiaren erretratu irri-garria egiten duen bitartean. Gizakia, "teatroa egiten" dabilen jokalaria baldarra litzateke".

Parisen estreinatu zen

"Hamaika trikimailu" antzezlan musikala (abestiak tartekatzen dira) Parisen estreinatu zen 1850. urtean. Leon abokatu gazteak (Joseba Apaolaza aktorea) zita bat dauka mai-



Laneko protagonista nagusiak aktore ezagunak ditugu.

tale batekin eta Adele bere emazteak (Idoia Sagarzazu) bereak eta bi egingo ditu zita hori eragozteko. Bisitan etorritako bere izebari (Ane Gabarain) bere zoritxarra azalduko dio Adelek eta izebak arazoari aurre egiteko *hamaika trikimailu* erakutsiko dizkio...

Pascal Gaigneren musika

Aipatutako aktoreez gain, Juan Luis Mendiara-zek (Groumelot jauna) eta Isidoro Fernandezek (Hocquart doktorea) hartzen dute parte In fragantiren azken muntaian. Musika Pascal Gaignek

konposatutakoa da eta bere lanerako garaiko erritmoetan oinarritu da Gaigne: valsa, polka, can-can..., e.a.

Istoria 1830 urtearen inguruan kokatzen da eta aktoreek orduko jantziak janzten dituzte.

In fragantiren hirugarren antzezlan

In fraganti taldea 1991. urtean sortu zen eta ordutik "In fraganti" (1991), "Hala bazan, ez bazan, sar dadila..." (1993) eta "Hamaika trikimailu" antzezlanak eskeini ditu. Zapatuan Bergaran ikusteko aukera izango den lana pasa den urteko Azpeitiko Antzerki Jaialdian aurkeztu zen, kritika onak jasoz.

Sarrerak 800 pezetan salgai

Zapatuko emanaldirako sarrerak 800 eta 500 pezetan (Gazte Txartelarekin) jarriko dira salgai Novedadesen.

"In fraganti taldeak Eugène Labiche idazlearen "Hamaika trikimailu" antzezlan musikala egokitu du. Iaz Azpeitiko Jaialdian aurkeztu zen"

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Bergarako auzoak

Legealdi honetako hasiera batean, 1995eko uztailan, auzoetako eskakizunak eta premiak jasotzeko eta aztertu ondoren, egitarau bat azaldu genuen auzoetako batzordean eta ahal dugun neurrian eskakizun horiek aurrera eramaten jarraitzen dugu. Lanketa gehienak Udaleko brigadaren bidez egin daitezkeenak izaten dira eta interesgarria jotzen da beraiek egitea, gero mantenimendua errezagoa izan dadin, baina denak egiteko ez dira iristen eta banaka batzuk beste enpresaren bati ematea erabakitzen da. Baina inoiz oztopoak ere sortzen dira, Udalaren aldetik ezinezkoa jotzen da toki pribatuetan inbersioak egitea, horretarako bere jabetza lortu beharra dauka eta zuzentzeak denbora eramaten du.

Auzoetatik sarritan aipatzen da Bergarako Udalaren aurrekontua 1.768.775.000 pezetakoa dela eta auzoetarako 11.000.000 bakarrik; badi-rudi ez dela kontutan hartzen 1.448.270.000 gastu arruntak (derrigorrezkoak) direla eta inbersio mailan 195.164.000.

Udalaren 1995eko aurrekontuetan 10.000.000 pezeta zeuden auzoetako ekipamendurako zuzenduak eta horrez gain urak, argiak, bideak eta abar kontutan hartuta, guztira 41.813.862 pezeta inberitu dira iragan den urtean.

Bergarako herriak 15.542 biztanle baldin baditu eta hauetatik 1.548 auzoetan bizi direnak, hau da %10a inguru, datu hauek kontutan har ditzagan eta banaketa egin.

Aurtengo urterako Aurrekontu Orokorrean 11.000.000 inguru zuzentzen dira auzoetako ekipamendurako, baina ez da hori bakarrik, beste atal batzuk ere sartzen dira auzoetarako. Ekainaren 15ean 26.237.885 pezeta inberituta zeuden eta kontutan hartu behar ditugu oraindik aurtengo urtean egiteko daudenak: baserri bidetako kunitak; Angiozarren Jareikotzoko urak (Mendi Nekazaritzaren laguntzaz), pilota lekua estaltzeko

proiektua eta Azkuretako argiak (berehala egiteko); Basalgon Eliza aurreko etxe azpia konpondu; Murinondon urak eta argiak eta antena jar-tzea (egun hauetan); San Juanen eliza alboan plaza bat egitea; Ueberan Plazako argiak (berehala egiteko).

Aipatzen direnak kontutan hartuta, aurtengo 50.000.000 gaitutiko dira.

FELIPE ALTUNA (AUZOETAKO ZINEGOTZIA)

PNV eta EAKo zinegotziei

Senideak aurkeztutako mozioari uko eginez zuten botuari esker onartutako euskal presoak Euskal Herrirantz hurbiltzearen akordioa iritsi zitzaizgun pasa berri den maiatzaren 21ean. Gure erantzuna eman eta gero, bueltan bidali genizuen aipaturiko akordioa. Alabaina, Estatu espainoleko gartzela hauetan zehar festa nola dabilen ezaguturik, komenigarria iruditu zaigu Berrigarak eskeintzen digun txoko honetara gure iritzia ekar-tzea. Hona hemen ba:

Euskal presoak aspaldidanik pairatu behar izan dugu sakabanaketa, isolamendua, jipoiak eta giza eskubideen ukazio sistematikoa, zigor eta txantai politikoaren aurrean amore eman eta gure proiektu politikoari uko egingo geniolakoan. Hasiera hasieratik zuten alderdien erabateko babesa izan duen estrategia gupidagabe honek, ordea, huts egin du, gaur egun euskal preso politikoek kolektiboa inoiz baino sendoago baitago. Hala ere, onartu behar ezen, gure azalean dirau-tela zauriek oraindik.

Sakabanaketaren porrotaz jabeturik edo, orain "hurbiltzetaren" kontu hori atera duzue mahaietik, jakin, ondo dakizuenean neurri horrekin zauria ez dela erabat itxiko, izan ere, erdibideko irtenbidea besterik ez baita. Zeren bila zabilzate batzuei salda goxoa eta besteei makila salda

ematearen taktika hori proposatuz? Euskal preso-en kolektiboa zatitzeko estrategia berri baten bila akaso? Bada, jakin ezazue ez dugula inoiz horre-lakorik onartuko, ziega ilun honetan gaudenok Euskal Herrian bertatu arte borrokan jarraituko baitugu.

Onartutako akordioan aipatzen duzuen "onartezinezko gizakostea" ekiditea nahi baduzue benetan, zokora itzazue behingoz sufrimendua luzatu besterik egingo ez duten maniobra politiko ustelak eta lotu preso zein herri bezala dagozkigun eskubideak defendatzeari, hortik eta ez beste inondik, etorriko baita herri honek hain beharrezko duen benetako bakea. Euskal preso-ak Euskal Herrira.

IÑAKI IBABE GURIDI ETA IÑAKI ARIETALEANIZ
(OURENSEKO GARTZELATIK)

Frontoiko komunak

Frontoiko komunen egoera salatu nahi dugu. Lehen Berrigarak gutxituei eskeinitako errepor-taia batean ere adierazi genuen bezala komunak biltegi modura erabiltzen dira.

Horregatik, eskatu nahi diogu dagokionan Udal Pilotalekuko gutxituentzako komunak lehen bailehen behar den bezala jarri ditzatela.

ARITZ BIKUÑA

Tiira biraka



Odol ateraldia asteazkenean

Asteazkenean odol ateraldia egingo da Seminarioan 18:30etan. Bergarako odol emaleen elkarrekin dei egiten die herriko odol emaleei bertan parte hartzeko. Ekainean 120 odol emale hurbildu ziren. Hurrengo odol ateraldiak, uztailaren 24an, abuztuaren 7an eta irailaren 11n.

Justo Garate beka

Aurtengo Justo Garate beka eskuratzeko interesa dutenek euren eskakizunak irailaren 1etik 30era bitartean aurkeztu beharko dituzte. Aurtengo deialdia historiako gaiei zuzenduta dago. Bekaren iraupena 11 hilabetekoa da eta diru zenbatekoa, 935.000 pezeta. Informazioa eta argibideak Kultur Etxean edo 77 91 60 telefonoan jaso daitezke.



Turismo Bulegoak 1.300 bisitari izan zituen iazko udan. ARTXIBOA

Astelehenean zabalduko da Turismo Bulegoa

Udalak Bilboko North Incoming Service (NIS) enpresari adjudikatu dio udarako Udal Turismo Bulegoa. Azkenean, bi enpresa aurkeztu ziren Udalak deitutako lehiaketara eta NIS izan da puntuaziorik onena lortu duena. Iazko udan eta Aste Santuan ere Bergarako Turismo Bulegoaren ardura izan zuen NISek. Aurtengo Aste Santuan, berriz, Oñatiko Turlan izan zen Bergaran lanean.

Udaleko Turismo Bulegoa astelehenetik irailaren 2ra arte egongo da

zabalik Udaletxeko sarreran, goizez 11:30etatik ordu bietara eta arratsaldez 16:30etatik 19:30etara. Jaiegunetan eta igandeetan arratsaldez ez da zabalduko.

Egunero bi bisita gidatu antolatuko dira, Bergara ezagutzera etortzen diren bisitariari herriko ondarea (jauregiak, elizak, monumentuak..., etab.) erakusteko. Turistek, giden azalpenak, euskaraz, gazteleraz, frantsesez edo ingelesez jasotzeko aukera izango dute. Bi gida izango dira

Turismo Bulegoan lanean. Bertan banatzen diren foiletoak aurten katalanez ere argitaratuko dira eta ibilbide artistikoekin gida bat kale-ratuko da. Era berean, Bergarako postalak Bizkaia, Araba, Errioxa eta Gipuzkoako hoteletan banatuko dira.

Xabier Aranburu udal museologoak emandako datuen arabera, iazko udan 1.300 bisitari izan ziren Bergaran. Aranburuk aurten bisitari gehiago etortzeko itxaropena azaldu du.

HILDAKOAK

- Maria Larrañaga Askasibar**
Ekainak 27, 67 urte
- Felipe Oregi Arregi**
Ekainak 29, 67 urte
- Lucia Lopez Jimenez**
Uztailak 2, 66 urte

JAIOTAKOAK

- Martin Oteiza Lasagabaster**
Ekainak 26

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1

Aranzadi Ikastolako ikasleen zozketa

Aranzadi Ikastolako ikasleen ikasbidaiaren aldeko zozketan 396 zenbakia izan da saritua. Boletoren jabeak Kultur Etxean jaso dezake saria.

Kirol argazki lehiaketako irabazleak

Kirol argazkien VI. lehiaketako irabazleak honako hauek izan dira: zuribeltzean, Benito Cantero bergararrak eskuratu du lehen saria, Berangoko Javier P. Fernandez Ferrarasek bigarrena, Juan Armentia bilbotarrak hirugarrena eta, azkenik, Bergarako onena Agustin Gurrutxaga izan da; koloretan, berriz, Juan Antonio Unzurrunzaga bergararra izan da irabazlea, bigarren Juan Armentia sailkatu da eta hirugarren Agustin Gurrutxaga. Bergarako onenari zegokion saria Benito Canterok lortu du. Aurkeztutako lanik onenak igandera arte izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan.

Aldaketak Jubilatuen Egoitzan

Jubilatuen Egoitzak hainbat aldaketen berri eman du. Horrela astelehenetik ostiralera atezaina arratsalde egongo da eta beraz txanda guztiak (podologoak, masajista, etab.) arratsalde eskatu beharko dira. Larunbatean ez da atezainik izango eta zentrua arratsalde itxita egongo da. Igandean ere ez da atezainik egongo eta zentruko lehen eta bigarren pisuak itxita izango dira igandean. Baldintza hauek urriaren 14ra bitartean mantenduko dira.



Gorlako kantina berriak itxita jarraituko du.

Gorlako kantina ez da oraingoz adjudikatuko

Eskaera bakarra aurkeztu zutenek atzera egin dute

Gorlako kantina berria eskuratzeko eskaera bakarra aurkeztu zuten gazteek atzera egin dute eta beraz Udalak, oraingoz, ez dio kantina inori adjudikatuko. Aurreko astean Berrigarren jaso zen bezala, Udaletxean eskaera bakarra jaso zen baina, diru kontuak ondo aztertu ondoren, eskaera aurkeztu zutenek euren proposamena atzera botatzea erabaki dute.

Felipe Altuna auzoetako zinegotziak adierazi digun bezala, "oraingoz ez dakigu zer egingo dugun. Beharbada interesatutako partikularrekin berbetan hasi beharko gara, lehiaketak ez baitu espero genuen erantzuna jaso".

Bergarako Udalak kantina adjudikatu bezain laister kantina zabal-

tzeko asmoa zeukan baina inaugurazio ekitaldia atzeratu egin beharko da. Altunaren hitzetan, "ikusitako egin beharko dugu ea norbait kantina hartzeko interesatuta dagoen eta orduan hasiko ginatke epe berri batzuk zehazten. Oraingoz ez dago esaterik kantina noiz zabalduko den".

Gogoratuko duzue, kantina inauguratzeko ekitaldi ofiziala pasaden maiatzaren 22an izan zen. Orduan, besteak beste, Iñaki Txueka nekazal diputatua eta Bergara eta Antzuolako alkateak Gorlan izan ziren, kantinara ura eramanez ahal izateko hitzarmena sinatzeko. Udalaren asmoa kantina domeka eta jaiegunetan lau orduz zabalik egotea izango litzateke.

Nafar, s.a.

Rekanbioak

San Lorenzo 25 BERGARA ☎ 76 16 98 - 76 39 59



Banatzaille ofiziala

1958. urteaz geroztik profesionalen zerbitzura!!



MOTUL
300 V
COMPETICION

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

Sekulako giroa eta eguraldi bikaina San Martzialen

Milaka bergarar igandean San Martzialeko zelaietan

Joan zen igandean San Martzial eguna erabat arrakastatsua gertatu zen. Goizean goizetik, herritar ugari igo ziren San Martzialera egun osoa bertan igarotzeko asmoz.

Eguerdiko dantza saioen ondoren, milaka bergararrek bazkaltzeari ekin zioten.

Arratsaldean jokatu ziren herri kiroletan, berriz, gazte ugari hartu

zuten parte. Sokatiran, nesken kategorian, 8 talde izan ziren lehian eta Txustis taldeak lortu zuen garai-pena. Mutiletan, berriz, 14 taldek hartu zuten parte eta Mekolaldeko taldea izan zen irabazlea. Azkenik, txingetan, Angel Mari Iñarra izan genuen txapeldun. Kirol probak animatzen aritu zen Bittor "Satorre-txe" 3. sailkatu zen.



Herriko kuadrila ugari igo ziren igandean San Martzialera.

Xamatzeko zozketa

Xamatz dantzataldeak eginiko zozketan 3.639 zenbakia izan da saritua. Aitor Aginagalde boletoaren jabeak bi gazta, ondutako solomo bat eta Errioxako hiru botila ardo jasoko ditu.

Tanborrada

Santa Marina jaietako tanborradako entsaioak astelehenean hasiko dira, arratsaldeko 7 t'erdietan San Martin ikastetxean.

LABeko konzentrazioa

Joan zen ostiralean LABek konzentrazio bat burutu zuen Bolintxo okindegiaren aurrean, San Juanen. 35 lagun inguruk lankide baten kaleratzearen aurkako protesta ekitaldia egin zuten, pankarta bat erakutsiz eta Bolintxoren kontra oihukatuz.

Bertso paperak

Idolaz Antzuolako euskara elkartearen bertso paper lehiaketan, 10 urterartekoan artean, Susana Morcillo eta Iñaki Agirre izan dira bi lehenak. 11-14 urte bitartekoetan, Jon Iturbe eta Janire Iparragirre eta 15 urtetik 17ra artekoen artean Jone Letek irabazi du (bigarren saria eman gabe geratu da). Nagusien kategorian ere ez da saririk eman.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Lana topatzerako orduan

Kurrikulumak nola egin

- Lanpostua bilatzeko orduan, "Curriculum vitae" a egin beharra dago. Ze datu azaldu behar dira bertan?


- Kurrikulum bat egin dako ikasketa eta lan esperientziaren aurkezpen bat litzateke eta beraz guri dagozkigun datuak azalduko ditugu bertan: datu pertsonalak alde batetik (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, etab), ikasketak bestetik (ikasketa ofizialak, egindako ikastaroak, hizkuntzak edo informatika ikastaroak...), esperientzia ere bai (non eta noiz lan egin dugun) eta, azkenik, beste datu interesgarri batzuk (gidatzeko karneta, egindako beste lan batzuk, e.a.)

- Zenbat kurrikulum mota daude?

- Kurrikulumaren luzera eta erredakzioagatik bi bereizi daitezke: klasikoa batetik (luzea) eta amerikanoa (bizpahiru orrialdekoa, laburra, telegrafikoa ia) bestetik. Bestalde, datuen ordena kon-

tuan hartuz beste bereizketa bat egin daiteke: kronologikoan datuak gertatu diren ordenean azalduko ditugu, eboluzioa adierazteko. Funtzional edo tematikoan, berriz, iharduerak kapituloka azaltzen dira, izan ditzakegun hutsuneak estaliaz. Azken hau oso ondo dator esperientzia haundiko kasuetan.

"Besteen parean destakatzea nahi badugu kurrikulum pertsonala egitea komeni da"



Beti ere aurkezten garen lanpostua izan behar da kontutan.



ERIKA MENDIBIL
(Lan teknikaria)

- Enpresa edo lanpostua kontuan hartuta, kurrikulum diferentea egin behar dugu?

- Beste hautagaien parean destakatzea nahi badugu, kurrikulum pertsonala egitea komeni da. Hala ere, kurrikulum lortu nahi dugun lanpostura

egokitu beharko da. Gaur egun, ordenadoreek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz, gero eta kurrikulum kreatiboagoak eta erakargarriagoak ikusten dira eta beti eskeretzekoa da kurrikulum polit bat jasotzea.

- Ondoren elkarrizketa pertsonala etor daiteke. Nolako gaiak tratatzen dira horrelako elkarrizketetan?

- Elkarrizketa mota desberdinak daude. Estandarra (kandidatoari buruzko datuak ezagutu nahi direnean), informala (aurre eskemarik gabekoa), txokekoa deiturikoa (saltzaileei adibidez egiten zaie eta tentsio egoeretan nola erantzuten duten ikusi nahi izaten da) eta, azkenik, kolektiboa (hainbat elkarrizketatzaile izaten dira eta gai ezberdinetan adituak diren pertsonen iritzia jasotzen dira).

- Zein garrantzi ematen diezu janzkerari eta horrelako detalletari?

- Itxura fisiko eta pertsonala zaintzea ondo dator beti eta ezaugarri deigarriak ebitatzeko ahalegina egin behar da, beti ere aurkezten garen lanpostua kontutan izanik. Adibidez banku batera lan eske baldin bagoaz komenigarriena ondo jantzita, dotore, joatea izango da.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

GIARTZU GIMNASIOA

MIKEL ARAKISTAIN

KARATE FEDERAZIOAREN GERRIKO BELTZA

Mikel Arakistainek (14 urte) Espainiako Karate Federazioak ematen duen gerriko beltza lortu berri du. Giartzu gimnasioan entrenatzen du Josean Iñarra prestatzailearen aginduetara. Orain dela zortzi urte hasi zen karatea egiten eta azken bi urteak gogor entrenatzen eman ditu. Ondo merezitako saria jaso du. Aitor De La Riverette-rekin batera, titulu hau eskuratu duen bergarar bakarra da. Biak Giartzu gimnasioko karate eskolan dihardute.

Noiz hasi zinen karatean?

Sei urte nituenean ekin nion eta hasieran lasaiago hartu banuen ere, azken aldian gogor aritu naiz. Urtarrilean ekin nion gerriko beltza ateratzeko prestaketa bereziari eta astean hiru ordu entrenatzen ibili naiz.

Nolako azterketa izan da?

8 karate mugimendu egin

nituen lehenengo, karatean Kata bezala ezagutzen ditugunak, eraso eta defentsa teknikak lantzeko ariketak. Gero, beste baten kontra, karate konbatea egin nuen.

Orain zer?

Gerriko beltza lortu dut dagoeneko, baina orain Dan mailetarako prestatzen hasiko naiz. 16 urte egin arte ezin naiz aurkeztu lehenengo Dana lortzeko azterketara.

Nola hasi zinen karatean?

Txikitan karate pelikulak ikustea gustatzen zitzaidan, horregatik karatea egiteko lehen aukera izan nuenean, Giartzun eman nuen izena eta horrela hasi nintzen.

Baina ez al da arriskutsuegia hain gazte hastea?

Ez, hasieran ez nintzen kolpeak hartu eta emanaz hasi. Karatea oso kirol konpletoa da eta gorputzaren alde fisiko eta psikikoak lantzeko oso baliagarria da, sasoiaren egoteko oso ona da.



MARISABEL HURTADO

GIARTZU GIMNASIOKO NAGUSIA

Espainiako Federazioko azterketetara aurkezteko zentru bakarra da Giartzu gimnasioa. Beste karate eskola batzuk badaude baina federazioaren bermea duen Bergarako bakarra Giartzu da. Gurea Bergarako karate elkarte federatu bakarra da.

JOSEAN IÑARRA

KARATE PRESTATZAILEA

Espainiako Karate Federazioak ematen duen gerriko beltza eskuratu gero, karateko nazio mailako entrenatzaile titulua lortzeko aukera dago. Federazioak emandako gerriko beltza ez dutenek ezin dezakete entrenatzaile titulua atera.

Kamioian bizi

Garraiolarien gora-beherak

Kamioiaren kabinan neska bat biluzik azaltzen den posterra jarri, munduko bazterrak ikusi, lagunekin txikiteoan ibili... ez, horrelako kontuak joanda daude. Gaur egungo kamioilariak ez du orain dela 15 urtekoarekin ezelako zerikusirik. Kamioi gidari gutxik gomendatuko liokete euren lana seme-alabei.

Ekainaren 10ean gidarien patroia, San Kristobal izango da. Bergarako auzo horretakoek badute ospatzeko asmoa, baina baita gidariak ere. Hantxe izango dira, besteak beste, kotxe berria erosi dutenak, taxistak eta autobus eta kamioi gidariak.

Hala ere, badirudi kamioilariak, behintzat, gero eta gutxiago elkartzen direla. "Orain ez dugu ospatzen, bezerorik galdu nahi ezean egun horretan ere lan egin behar da" dio Felipe Landak, orain dela 32 urtetik hemen inguruan, kamioi gainean, dabilen gidariak. "Leben San Kristobal egunean egunpasa ederak egiten genituen, gol-



Gutxi dira garraio enpresa handiak. Garraiolari gehienak autonomoak dira.

perik ere ez genuen egiten: kamioia bedeinkatu, kamioiak iladan prozesioan kalera joan, aparkatu, txikiteoaren ostean bazkaria, eta gero, atzera, San Kristobalera, erromeriara joaten ginen. Baina orain ez dago lehenago konturik. Azken egunpasa duela 16 bat urte egingo genuen".

Azkar lan egin behar

Aldaketa handiak izan dira azken urteotan garraioan: bai onerako, bai txarrerako. Diego Benitez 34 urtean MAYCentzat lanean dabilen gidariaren esanetan onerako baino txarrerako aldaketa gehiago izan dira: "orain frenoak, direkzioa, ero-

sotasuna... lehenago kamioiek baino hobeak dituzte, baina kompetentzia eta presa inoiz baino handiagoak dira, eta biziezina handiagoa". Luis Mari Gutierrezek ere azkar lan egin beharra aipatzen du: "gaur egun zerbitzu ona eta azkarra -Estatuan 24 orduan eta atzerrian 48 orduan- es-

MUJIKA
Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Aldoka
Maldoka
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

kaini behar zaio bezeroari. Hala egiten ez bada, bezeroa galtzeko arriskua izaten da. Bezero berria lortzea asko kostatzen da, baina lanik handiena ematen duena mantentzea da, galtzea ezer ez baita kostatzen".

Duela 15 urte hasi zen Luis Mari La Guipuzcoan; barrez gogoratzen ditu hasierako pasadizokak: "nik pakete mordoa ikusten nuen bata bestearen gainean pilatuta, eta barritu egiten ninduen. Ugazabari galdetzen nion ez ote ziren banatu behar, eta erantzuten zidan presa baldin bazuten bila etorriko zirela, eta pilan 8 bat egun egiten zuten".

Kamioi asko

Kamioilarien %90 autonomia da eta bere kontura lan egiten du. Autonomoak era desberdinean funtziona dezake: etxe edo komertzializadora batekin lan eginez, kooperatiba batean lan eginez -edozein egunetan harremana hautsi daitekeelarik-, edo kamioi enpresa bateko langile izan daiteke. Luis Mariren us-tez errazena kamioia erostea da: "lan barik gelditzen den mutilak kamioia erosten du. Baina errazena horixe da, eta oferta demanda baino gehiago dago. Gero amortizatu egin behar da; kontutan hartu be-

har da kamioi batek 8 bat urterako irauten duela eta gero beste bat erosi behar dela. Eta kamioiak gastu fijoak ditu, seguroa, gasoila, gaisotasunak, aberiak, e.a."

Esteban Muruamendi-araz, Sintraguiko idazkari teknikoa ere bat dator: "garraiolariaren bizitzaz jendeak irudi okerra du; 'hori da bizi!' pentsatzen da, hobbytzat hartzen da, txoferra izatea txol-loa izan behar duela ematen du, eta jendeak kamioia erosten du". Trailer batek, bataz beste, 20 milioi balio du, finantziazioa kontutan hartuta 27-30 milioi ateratzen da; kaleetan ibiltzen diren banaketako kamioiek, berriz, 6 bat milioi; eta, furgonetek 3-4 milioi.

"Baina kamioiak hilerozergak, mantenimendua, aberiak, e.a. ditu. Jendea edozein preziotan lan egiteko prest egoten da, eta lan hori zer den konturatzen denerako berandu da: inbertsioa egin duela ezin dela bizi ikusten delako, eta norberaz gain, gaintzeko kamioilariak kaltetzen direlako".

Kamioi abioiak

Baina dena ez da txarrerako, onerako urratsak eman dira, eta gidariek estimatu asko dituzte kamioietan zein errepideetan egin diren aurrerapenak, Diego Benitezek dioen bezala. "Gaurko kamioiak abioiak dira: jarlekuak, frenoak, di-

rekzioa... bala ere, osasun arazoekin jarraitzen dugu. Nabiz eta jarlekuak norberaren gorputzari eta pisuari egokitu, gerriko arazoak baditugu, ordu asko egiten baitugu eserita. Kamioi ona beharrezkoa da. Nik astean bost egunetan kabina-hotelean egiten dut lo. Nire etxea da kamioia. Bestalde, bideak lehen baino hobekiak dira, eta ordu gutxiago egiten da ibilbide bat egiten".

Hala ere, kompetentzia gero eta handiagoa dela dio, eta legeak agintzen duena beti ez dutela betetzen: "egingo nuke kamioilarien %90k legeak agintzen duen baino ordu gehiagoan gidatzen dugula. Biziko bagara, ez dugu beste erremedio-



Kamioilariak diotenez, gehienek legeak agintzen duen baino ordu gehiagoan gidatzen dute.

BERGARA MARMOLERIA
 PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
 Uriarte, 8 BERGARA
 ☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77



LASA
Jatetxea
 OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxes: 76 20 29

Esteban Muruamendiaraz

SINTRAGUIko idazkari teknikoa

Zein egoeratan dago garraioa?

Egoera txarrean. Krisia dagoenean lehenengo igartzen eta isladatzen den sektorea garraioa izaten da. Produktzioa jaisten bada, garraioan eragiten du: kamioi asko geldirik geratzen dira, eta beste askotan mugimendurik ez da izaten. Iaz urte ona izan zen, baina bukaerarako jaitsi egin zen. Uda parteko hil hauek, gainera, urteko txarrenak izaten dira oporrenatik.

Zein arazo du garraioak?

Kamioi gehiegi dago, eta kamioi gehiegi egonda prezioak jaitsi egiten dira. Edozein arlotako enpresetan errekonbertsioak egiten dira, baina garraioan ez da egin. Estatuan 10.000-12.000 kamioi sobran daude, eta langileen %30 60 urtetik gorakoak dira. Administrazioak dio alde zuzeneko jubilaziorik ezin dela egin, garraiolariek (%98 autonomoak) zerga gutxi ordaintzen duelako. Guk, berriz, diogu batzuek bestekoa ordaintzen duela, hidrokarburoen zerga berezietan. Gasoil litroko 80 pezetatik, 47 zerga berezietarako direlako; horrez gain, IRPF, e.a. ordaintzen du. Hortaz, gutxien ordaintzen duenak ere asko ordaintzen du. Administrazioak ez du dirurik gastatu nahi, baina errekonbertsioa garraiolaria poliki-poliki arruinazen lagaz egin nahi du. Horretarako neurriak hartuta ditu.

Legeak zein neurri aipatzen du?

Lau ordu t'erdia ibilitakoan hiru ordu laurden geldirik egon behar da, beste

lau ordu t'erdia egin eta ezin da gehiago ibili. Hortaz, 9 ordu baino gehiagoan ezin da ibili. Astean bi egunetan bakarrik egin dezake 10 ordu. Horrez gain, asteburuetan 36 orduan zeharo geldirik egon behar du kamioiak. Hori dena takografoak jasotzen du. Takografoa 3.500 Kg. baino gehiagoko kamioiek eraman behar dute eta kamioiaren mugimendu guztiak markatzen ditu: abiadura, eta martxan zein geldirik zein kargatzen egon den orduak.

"Administrazioak ez du

dirurik gastatu nahi eta

errekonbertsioa garraiolaria

poliki-poliki arruinazen

lagaz egin nahi du"

Takografoarekin engainatzerik?

Manipula daiteke, baina hori Administrazioak ere badaki. Harrapatuz gero, isun handiak jartzen dituzte. Gainera, kontrol zorrotzak egoten dira: guri hilero 50 pakete eskatzen dizkigute. Datuak izateko azken urteko diskoak eska ditzakete; zigorrak jartzeko, berriz, azken hiru hilabeteetakoak. Takografoaz gain,

kamioiek abiadura orduko 85 kilometroan mugatzeko makina bat dute jarrita, eta ITVtan zorrotz kontrolatzen da. Sintragui ez dago makina horien kontra, gidariaren bizitza kalitatea hobetzeko direlako; baina Europatik etorritako neurriak dira, eta ezin dira konparatu Europako bideak eta hemengoak. European orduko 85 kilometroan kilometro pila egiten da, eta hemen ez. Azkenean gertatzen dena da egoera, lana eta prezioak gaizki daudela, eta gidariak legeak dioena salto egin behar duela bizi ahal izateko.

Zein izan daiteke irtenbidea?

Zedozer lortuko bada, garraiolariek elkartu edo sindikatu beharra dagoela ikusten dugu. Euskal Herrian kontzientziatuta dago garraiolaria, afiliazio kopurua altua da, baina Estatuan kopurua nabarmen jaisten da. Langilerik gehienak autonomoak dira, bere lantresna duten langileak, baina ez dute inolako lan eskubiderik: enpresa batekin lan egin badute azken 30 urteetan eta harremana mozten bada ezin dute ezer egin, ez dute nora joan, ez dakite erreklamatzeko atea non jo... bakoitzak bere kontura lan egiten du. Legeak garraiolaritari betebeharrak jartzen dizkio, eta eskubiderik ez dio.

"Garraiolariek elkartu edo sindikatu beharra dago"

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

AGIRREBEÑA

**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

rik. Eta jakina, horrek esan nahi du beti kontrolak ikusteko beldurrez ibiltzen garela".

Bakardadea

Hemen inguruan ibiltzen den kamioilaria ez da bere lanbidez asko kexatzen. Gogorragoa da kanpora bueltaka ibiltzen denaren bizimodua: etxean ez du ia sekula bazkaltzen, ezta lorik egiten ere. Gidari honen bakardadeari, ordea, atera zaio lagunik: telefonoa eta emisora. Emisorak, batez ere, bide luzea egin behar dutenei beste gidariek berba egin eta denbora pasatzeko aukera ematez gain, errepidearen eta trafikoaren egoeraren berri jakiteko parada ematen die. Dena den, Diego Benitezek ez du gustoko. "Ezagutzen dut, eta tontokeria asko esateko erabiltzen denez, nik ez daukat. Hala ere, badakit ia kamioilari denek dutela". Felipe Landak dioenez telefonoa diruarekin ere ezin da pagatu. "Niregatik balitz ez nuen izango, semeagatik daukat. Eta orain, ez daukat

"Lehen San Kristobal egunean egunpasa ederrak egiten genituen, kolperik ere ez genuen egiten. Orain ez dago lehengo konturik". FELIPE LANDA.

saltzeko: bezeroekin komunikatzeko, alfer bidaiarik ez egiteko... zeharo erabilgarria da gure lanerako". Felipek hasi zeneko egunek eta gaurkoek ez dutela zerikusirik dio: "poltsikoan pañueloa besterik ez nuela hasi

nintzen, orain, berriz... Akordatzen naiz lehenengo kamioia bartu nuen gauean kamioia pagoz kargatuta nuela amets egin nuen. Frenok ihes egin eta kargak ihes egin behar zidala eta, kuxkur-kuxkur egin-

da nituen hankekin ohe barrena jotzen hasi nintzen, kargari eutsi nahirik edo. Halako golpeak jo nizekion, azkenean, ohebarrena apurtu egin nuen".

Istripurik eta isunik ez

Harritzekoa bada ere, egon garen kamioilariak esan digute ez dutela izan istripu garrantzitsurik. "Aparkatzerakoan arraiatxoren bat edo beste, baina istripu larrik ez. Horretan errepideak eta kamioiak hobeak izateak dute zerikusia".

Isunei dagokienez, Luis Mari Gutierrezen arabera, pintura kargatzearen euren gidari bati 7 isun, 275.000 pezeta, jarri zizkioten; Felipe Landari karga gehiegi eramatearren 4.000 pezetako isuna jarri zioten duela 12 bat urte, baina gehiagotaz ez da akordatzen.



Guztiek aitortzen dute lanbide gogorra dela.

Orain, MultiOpticasen hilebeterako diren kontaktuzko Multilens lenteak dituzu 15.000 pta. ordainduta sei hilebeterako. Horrez gain, lentilon mantenurako 355 ml-ko Unices Disoluzioaren bi flasko eta estrenatzeko prest duzun polo olinpiko bat oparitzen dizkizugu hileko 2.500 pta.gatik.



*Kontaktuko 12 lente hamasei hilebeterako: 15.000 pta. Prezio hau ez zaizkie ale bakarrei egingo. Promozio hau 96.7.31ra arte edo izakinak amaitu arte izango da.

Estrena itzazu kontaktuzko lenteak hile bakoitzean 2.500 pta.

MANTENURAKO 2 LIKIDO ETA POLO OLINPIKO BAT DOAN

HILEBETERAKO DIREN KONTAKTUZKO MULTILENS LENTEAK

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
Ibargaray, 16 • BERGARA
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

Iruñeako San Fermin jaietara joateko ohiturarik badaukazu?



Igor Larrañaga

Aurreko urteetan joan izan naiz baina aurten ezin dut. Gainera diru asko da. Jai asko daude eta aukeratu egin behar... Baina San Ferminak oso ondo daude.



Pedro Manso

Lau bat urtetan joan izan naiz baina aurten ezin... Gustatuko litzaidake oso ambiente ona izaten delako. Denetariko jendea dago han.



Dorleta Iturbe

Egon izan naiz bai, baina aurten beste jai batzuetara noa. Baina Iruñean jende asko eta ambiente polita egoten da.



Beni Perez

Bai, egonda nago baina gaztetan. Ondo dago baina beharbada jende gehiegi ibiltzen da. Behin probatzeko ondo baina orain joateko... nekez ikusten dut.



Pepi Aldasoro

Orain seme-alaba txikiekin ezin... Bueno anai bat ezkondu daukat han eta beharbada bazkaltzera joango gara. Hori bai, entzierroak egunero ikusten ditut telebistan.



Igor Larrañaga


Ez naiz sekula egon. Joateko asmorik? Asmoa bai baina astirik ez, lanean nago eta. Igual astebukaeran bueltatxo bat... Probatzeko gogoia daukat.

Biltoki.



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa


GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



Aldrebeskeriak

Eta oin ze ingou? Hori izaten da asteburu danetako galderia. Tabernak itxi eta jendia gustoren dabilenian, kalean geratu bihar.

Kuadrilliakin afaldu, ordubatak alderako kalera bajau eta bi ordu besteik ez die geratzen herrixan lagunekin trago batzuk hartu eta juergatxua botatzeko. Hiru t'erdia alderako dana itxi biar izaten dabe.

Arrazoiak? Bueno, batetik, tabernei danok ezagutzen dogun lege hori aplikatu dotze, lege horrek esaten dau hiru t'erdietatik aurrera zabalik eukitzeko permiso bat bihar dala, permiso hori lortzeko diru dexente pagau eta tabernia preparau biar dala (insonorizau...).

Tabernarixendako gasto haundixa da eta neixo dabe hiru t'erdietan itxi eta ahazia. Bestetik, taberna inguruko bizilagunak keñau itxen die zarata asko ateratzen dogulako edo...


Hau, seguramente, legia aplikatzeko arrazoi bat izango zan. Baiña, egixa esan, tabernak atia itxi eta musikia baju eukitzen badabe ordu batetik aurrera, ez zan zarata geixegi entzungo, jendian berbak eta batzutan kantua ez baldin badie behintzat.

Jendian zaratak, tabernak itxen baditxue kalia entzun biako die, jendia ez bada herritxik irtetzen behintzat; jendia herritxik irtetzen bada, orduan bai konpontzen dala dana, tabernak ez dabe legia saltatzen eta gainera herrixa ixilik gelditzen da, hilda ez esatiarren.

Baiña herritxik irtetzen dan jendiak kotxia hartzen dau, eta askotan kontrolak edo akzidentiak eukitzen ditzute. Azken finian, zeinek in dau egoeria holakua izatia?

Ze da hobia, herrixa hilda laga eta jendia (gazte eta nausi) peligran jartzia ala herrixa eta geixenetan jendia bixi-bixi eta pozik egotia, zarata pixkat etara arren?... Noski, bakoitzak beria.

Iñaki GABILONDO



Errusia

Urruti egon arren gu ere ukitzen gaitu Europako erraldoi militarrean gertatzen denak. Nazioarteko prentsa eta analista politikoak Errusiako lehendakaritzarako hauteskundeei begira daude, Jeltsinek irabazi arren ez baitute garbi laga Errusiako mapa politikoa; izan ere, populazioaren %40 inguruk sistema komunistarekiko (orain Ziuganov-ek ordezkatua) atxekimendu argia agertu du. Lehenengo itzuliko garaipen urriak botere arlo batzuk Lebel jeneralari, bigarren itzulian laguntzaile izan duen indar politikoari, lagatzera behartu du Jeltsin.

Ondorioz, hauteskundeak ekar zezaketen botere-banaketa iraunkor baten lasaitasunaren orde, beldurra areagotzea ekarri du Europako beste herrietara, izan ere, une honetan Errusian duen panorama ez da txantxetako: Estatuburu hanka bat beste munduan duela, buruzagi indartsu berria Armada Gorritik datorena, eta komunista bat zer gertatuko den zain.

Ziuganov ez da europarren gogoko baina Lebelek zer ekarriko duen ere ikuskizun dago. Herriaren borondateaz ahaztu eta tradizio militarri helduaz bere sistema inposatu nahi izango ote du?

Badirudi ez dela mendebaldeko aliatu berriez gehiegi fidatzekoa eta ez duela Armada Gorriak jasan duen porrot morala ahaztu. Eta gogoan izan behar da armada horrek, egoera kaotikoan badago ere, oraindik ahalmen militar eta atomiko izugarria duela.

Beldur horiek uxatzeko, errusiarren adiskide berriek dolarrez estali nahiko ditzute herrialde haiek, eta lehengo Sobiet Batasuneko beste nazioengana hurbiltzen saiatuko dira, baina hori berori ere izan daiteke bide arriskutsua Errusiak berak izan nahi baitu Sobiet Batasun zaharreko aitaponteko.

Juan Antonio MIGURA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49





■ **Futbolaren katedralean**

Ezkerreko argazkian agertzen den lagun kuadrila Londresen izan zen orain pare bat aste, Eurokopian Ingalterrak eta Espainiak **Wembley** futbol zelai ospetsuan jokatu

partiduan. Txapelketako partidurik onenetakoa ikusteko zorzea izan zuten eta horrez gain primeran igaro zuten astebukaera Londresen. Bestalde, **Amaia** eta **Jon Zabala** anai-arrebak, Marca egunkariak antolatutako zozketa bati esker,

Espainiak Bulgariaren aurka Leeds-en jokatu zuten lehendabiziko partiduan izan ziren. Argazkietan behintzat ez da "Manolo el del bombo" somatzen eta pentsa dezakegu bergarar zaletuek lasai jarraituko zituztela partiduak...



■ **Donostiako Orfeoa Bergaran**

Joan zen ostiralean **Donostiako Orfeoiak**, Arrasatera bidean, emanalditxo bat eskeini zuen Udaletxeko arkupetan. 1896an Arrasaten ospatutako Euskara Jaietan emandako kontzertua gogoratu nahi izan zuten donostiarrek eta horretarako joan zen mendean egindako ibilbide bera egin zuten. Zumarragara trenez heldu ondoren Bergaran parada egin eta, orain 100 urte bezala gizonez bakarrik osatutako Orfeoiak "Ume eder bat" eta "Boga boga mariñela" eskeini zituen. Donostiarrek hainbat bergarar abeslariren laguntza izan zuten. Jarraian Victoriano Gallastegi alkateak Herri Hiribilduaren kopia bat entregatu zien oroigarri modura eta ondoren Donostiako Orfeoiko kideak Arrasatera abiatu ziren.

BERGARA
Karrozeriak
 Txapa - Pintura
 Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTZO
 ILEPAINDEGIA

Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloia edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujok jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorra, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

■ Plaza dotoreenetakoa

Kilometro Mapfre aldizkarian, maiatzeko alean (5. zenbakia), *Tesoros encontrados* izeneko sailean, Estatuko plaza ederrenei buruzko bigarren atala dator eta bertan Bergarako plazari tarte dexente eskeintzen zaio. **Pilar C. Gil** kazetariaren testuarekin batera, **Benito Canteroren** hiru argazki ikus daitezke, Udaletxeko fatxada, Seminariokoa eta Jauregi etxea azaltzen direlarik. Testuan, besteak beste, hauxe jasotzen da: *“La tranquilidad de sus plazas y el sosiego de su entorno dan vida a esa tierra de paz y silencio hospitalario que Baroja describió en sus obras”.*

Tesoros encontrados



Foto: Benito Cantero. Ayuntamiento de Vergara

Plaza de San Martín de Aguirre, en Vergara

PLAZAS DE ESPAÑA (II)

por **Pilar C. Gil**

Aunque las ciudades monumentales son las que suscitan el interés y la atracción de un mayor número de visitantes, a menudo son las escenas del lugar las que marcan el verdadero pulso de un país. Y eso ocurre en España.

Junto a los grandes y consagrados centros de arte e historia, se conservan otros muchos enclaves llenos de atractivo. Nos referimos a las peque-

ñas plazas de España. Esos caprichos culturales, los mini-núcleos paisanos, que, a manera de «tácita de plata», marcan el emblema, santo y seña de su ciudad.

Unos rincones con sabor ecléctico que, desde su callada retaguardia, emanan el verdadero encanto, la chispa risueña de la piedra que las vio crecer. Pero encanto son también los valores que encierran.

El cariño de sus gentes, los tesoros artesanos, la alegría de sus fiestas... son, en definitiva, la joya más apreciada de su sutil emanación.

Seguir su ruta y descubrirlas será la mejor inversión para disfrutar la apasionante aventura de un paseo por los pueblos de España.

**Plaza de Vergara (Gulpúzcoa).
Fragancias de leyenda**

Al hablar de esta tierra no podemos olvidar a Pío Baroja, el insigne


Casa Jaurerri, vista desde el Ayuntamiento.



Facienda del Real Seminario de Vergara.

Kilometro MAPFRE - Mayo 1996

Zertan dihardute ba?



Xabier Zubizarreta

Santa Marinako parrokoak apaiz egin zeneko zilarrezko eztaiak bete zituen joan zen larunbatean, San Pedro egunean. Aretxabaletakoa jaiotzez, Xabier Zubizarretak (49 urte) Saturarraraneko Seminarioan eta Donostian egin zituen apaiz ikasketak eta 1971. urtean, beste bi lagunekin batera, apaiz ordenatu zuten Mutrikun. Orduetik, Zumarragan, Zestean, Antzuolan eta Bergaran izan da apaiz lanetan. Larunbateko arratsaldeko 8etako mezan eliztarren zorionak jaso zituen Zubizarretak.

■ **Sukaldariak**

Jardunek antolatutako sukaldaritza ikastaroan parte hartu dutenek ikastaro amaierako afaria egin zuten ostegunean **Sagar-pe** elkartearen. Joan zen maiatzaren 8tik ekainaren 19ra bitartean, **Alberto Elortza** Oñatiko Zelai-zabal jatetxeko sukaldariak,



asteazkenero, bi orduko klaseak eman dizkie herriko 26 laguni San Martin ikastetxean. **Alberto Altube** dietistak elikadurari buruzko hitzaldia eman zien.

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.
Karta (2.000-3.500 pza. artean).
Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08


ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30




Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Carlos Maestre

Valladolidekoa izatez, Carlos Maestrek (50 urte) 35 urte daramatza gure artean. Ezkonduta dago, bi seme-alaba dituzte eta azken 21 urteetan Maestre Irizar kaleko taxi paradan dabil lanean.

- Zenbat kotxe izan dituzu?
- Hamaika.
- Oroitzapenik onenak?
- Peugeot 505ak, 500.000 kilometrotan ez zuelako aberiarik izan.
- Zenbatero aldatzen duzu kotxea?
- Bi urte eta erdira.
- Kotxerik onena, zein?
- Orain daukadana, Renault Xafranea.
- Urtean zenbat kilometro?
- 125.000 inguru.
- Noiz atera zenuen gidatzeko karneta?
- 24 urterekin, lehendabizikoan.
- Zela egin zinen taxista?
- Otseinen egiten nuen lan eta Francok ETAKo batzuk hiltzeko agindua eman ondoren arazo batzuk izan ziren Espainiaren kontrako boikotagatik. Eszedentzia eskatu eta orduan Fernando Txurrukak taxista lanpostua eskaini zidan.



“Taxian Bibi Andersen eramango nuke gustora. Behin Getarian ezagutu nuen eta oso atsegina iruditu zitzaidan. Tourrean Indurainen arerio nagusia Zulle izango da. Aurten ere San Ferminetara joango naiz”

- Non daude gidaririk onenak?
- Frantzian.
- Nolako klienteak dituzu?
- Enpresak batez ere. Paradan gauza gutxi izaten da.
- Astebukaeran ala aste barruan lan gehiago?
- Aste barruan.
- Klienteekin zeri buruz egiten duzu berba?
- Politika kenduta...
- Kotxean irratia ala musika?
- Musika klasikoa nahiago.
- Nola igarotzen dituzu ordu hilak?
- Lankideekin berba eginez.
- San Kristobal ospatzen duzu?
- Bai. Afaria eginez eta kotxea Arantzazun bedein katuz.
- Zenbatero garbitzen duzu kotxea?
- Ia egunero. Eta egun batzuetan behin baino gehiagotan.
- Abiadura mugei kasorik bai?
- Presagatik ezinezkoa da.
- Hiri haundi batean lan egingo zenuke?
- Ez, stress gehiegi...
- Taxian nor eramatea gustatuko litzaizuke?
- Bibi Andersen. Behin Getarian ezagutu nuen eta oso atsegina zen.
- Udan plaia ala pizina?
- Plaia, Zarauzkoa.
- Tourrean Indurainen arerio nagusia?
- Alex Zulle.
- Aurten San Ferminetara?
- Bai, urtero joaten naiz...



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Artekale, 22 BERGARA ☎ 76 16 63

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •



gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuen-
girolan. ☎ 76 05 37.

Pisua salgai Osintxun.
Erdi amueblatuta, argitsua.
☎ 76 17 27/55 98 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 09 37.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 43 22.

Ganbara bat behar dut
bizitzeko. ☎ 76 39 65.

Pisua salgai Bolun. 100
metro karratu. ☎ 76 22 72.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 25 31.

Estudioa alokatzen dut
Benidormen. ☎ 76 23 43.

Berriztutako **ganbara** San
Pedro kalean salgai.
☎ 76 24 05.

Garajea salgai San Loren-
tzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. ☎ 76 47 67.

Pisua salgai Frontoian.
160 m2. ☎ 76 24 42.

Osintxun buhardilla bat
salgai. ☎ 76 15 36.

Baserría salgai Elgetan.
☎ 12 09 67/12 71 10.

Pisua salgai Mugertzan.
☎ 76 53 79.

Pisua alokatzen da Zu-
biaurren. ☎ 76 13 85.

DENETARIK

Olivetti fotokopidora sal-
gai. ☎ 76 51 23 (gauzez).

Denda-remolkea salgai.
☎ 76 37 82.

Otsein labadora salgai.
☎ 908 67 09 10 (Markos).

Peugeot 505 kotxea (SS-
S) salgai. ☎ 79 94 11.

Imar denda-remolkea sal-
gai. ☎ 76 58 62 (gauzez).

Ford Fiesta kotxea sal-
gai. Egoera onean.
☎ 76 33 26.

Trialsineko Monty bizi-
kleta salgai. Egoera one-
an. ☎ 76 56 13.

Imar karro-denda salgai.
190.000 pezeta.
☎ 76 59 56 (gauzez).

Ohe artikulatu automatiko
berria salgai. ☎ 76 37 24.

Nissan Vanette (SS-AK)
salgai. ☎ 21 18 55.

Mendiko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 51 55.

Sofa bat salgai. 20.000 pe-
zeta. ☎ 76 64 71.

Karakol eskilara salgai.
☎ 76 14 84.

Sango denda-remolkea
salgai. ☎ 76 33 92.

Ford Sierra kotxea (SS-
AD) salgai. ☎ 76 33 10.

LANA

Ingenieritza ikasleak
klaseak ematen ditu.
☎ 76 11 11.

Neska batek etxeko lanak
egiten ditu. ☎ 76 48 39.

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 04 65.

OHO eta ingeles klaseak
uztailean (goizez).
☎ 76 17 18 (Jesus).

BBB eta unibertsitate maila-
ko klaseak. ☎ 76 35 37.

BBB eta UBiko klase parti-
kularrak. ☎ 76 20 04.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditu. ☎ 76 33 26.

Kamarera bat behar da.
☎ 76 23-71.

OHO klaseak ematen di-
tu. ☎ 76 24 42 (Amaia).

OHOko 1.go mailatik 5.era
klaseak ematen ditu uz-
tailean. ☎ 76 45 51.

Mate, fisika eta diedriko
klaseak. 8. maila, selektibi-
tatea. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin eta
haur bat zaintzeko neska
euskalduna behar da.
☎ 76 06 69.

Neska batek haurrak zain-
du edo etxeko lanak egin-
go litzuke. ☎ 76 13 46.

Kimikako 5. mailan ari
den ikasle batek lan egin
edo praktikak egingo li-
tuzke. ☎ 76 20 04.

Emakume batek haurrak
zaindu eta etxeko lanak
egingo litzuke. ☎ 76 30 20.

CAMACHO**Drogeria
Usaindegia****Bidekurutzeta, 24 BERGARA**

☎ 76 13 35

iletxo

ileapaindegia mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktoa, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

MAHER**Biltegiak L.E.**

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!****EUXEBIO II**

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92





"Ni ere harritu egiten naiz 'Nirekin' eta beste hainbat abestirekin gertatzen den majia horrekin"

"Ni neu destakatzea baino nahiago dut guztia lotuta egotea, lan guztiakin asko inplikatzeko naiz"

FRAN ITURBE, MUSIKARIA

"Estilo ezberdinekin identifikatzen naiz, guztietan jartzen dut nirea den zati bat"

Fran Iturbe kitarrajolea lanez gainezka dabil aspaldian. Gozategi anaiak, Gari "Hertzainak", Juan Carlos Perez edo Kaxianoren azken diskoetan kolaboratu du eta orain kontzertuz jositako udari egin beharko dio aurre.

- Musika estilo ezberdinak landu dituzu. Zeinekin identifikatzen zara?

- Guztiakin. Lan guztietan nirea den zati inportante bat jartzen dut, nahiz eta lan egiteko modu diferenteak izan. Gari-ekin kitarren ardura izan nuen, Juan Carlosekin erantzunkizun haundia goa izan dut (nahiz eta produkzio ardura berak izan) eta Gozategirekin, berriz, produktorea izan naiz, zuzendari lanak bete ditut prozesu guztian, abestiak aukeratzetik hasi eta grabazioa bukatu arte.

- Produktore lana da atseginen duzuna?

- Askok gustatzen zait. Gozategirekin kitarrek ez dute presentzia berezirik baina gehien kezkatzen nauena lan koherente bat egitea da.

- Zer iruditu zaizu Gozategiren "Nirekin"



Fran Iturbe Juan Carlos Perezekin taldearekin Zabalotegiko lokalean.

abestiaren arrakasta?

- Ni ere harrিতa nago zenbait abestirekin gertatzen den majia horrekin. Abestia jotzen edo tabernaren batean jartzen dutenean jendea abesten eta dantzan hasten da. Guk ere nekez ulertzen dugu.

- Orain Kaxianoren diskoan kolaboratu duzue...

- Kaxiano izugarri gustatzen zait. Oso soinu berezia dauka. Orain jendea erromerietako taldeak errekonozitzen hasi da eta ordua da bizi guztian hori egon den jendearen lana baloratzeko. Kaxiano gaur egun hori dabilzan musiko askoren

aita dela esan daiteke.

- Nola ikusten duzu erromeria taldeen arrakasta?

- Erromeria soinu bat dago. Erromeria eta berberena taldeak bereiztu behar dira, erromeria taldeek soinu propioa dutelako. Maixa eta Itziarrek, Gozategik..., euren erreperitorioa, soinua eta lan egiteko modua daukate eta besteen bertsioak egiten dituztenean ere berezko soinu eta ikutua. Hemen bakarrik aurkitu daitezkeen soinua da, autoktonoa eta desagertzeko zorian zegoena.

- Izan duzun arrakastarekin harrিতuta?

- Ez dakit, niri besteei laguntzea gustatzen zait. Destakatzea baino nahiago dut guztia lotuta egotea, lan guztiakin asko inplikatzeko naiz. Ez dut nire burua kitarra bertuosotzat hartzen eta besteek esan beharko dute nigan zer ikusten duten.

- Bakarlari modura irtetzeko asmorik?

- Aukera hori dago beti. Nik jotzen dudana gustatu izan zait beti eta estilo propioa daukadala esango nuke. Momentuz pozik nago musikatik bizi ahal izateagatik.

"Jendea erromerietako taldeak errekonozitzen hasi da. Erromeria soinu bat dago. Hemen bakarrik aurkitu daitezkeen soinua da, autoktonoa eta desagertzeko zorian zegoena"

Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketa

EMAITZAK

A ZE FLAXA-GUADEALEST	4-1
PATXARAN TEAM-AMILOTX	1-7
FACUTA-XURRUPAK	0-0
ARLOTEAK/OILAGORRA-EZINLEIKE	9-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-ALTOS PORNOS	4-2
PAOK-MATXAKATEGI	0-7
AMILOTX-MONGATXURRAK	3-0
GUADEALEST-PATXARAN TEAM	0-1
ANGIOZAR-A ZE FLAXA	1-3
SHAKTALE-LA JUVE	0-5

PARTIDUAK

Ostirala 5

19:15: XURRUPAK-BILDURBAREK OPEL/LAM
20:30: EZINLEIKE-FACUTA

FINAL LAURDENAK

Astehena 8

19:30: MONGATXURRAK-B MULTZOKO LAUGARRENA

Asteartea 9

19:30: B MULTZOKO BIGARRENA-A ZE FLAXA

Asteazkena 10

19:30: B MULTZOKO LEHENENGOA-LA JUVE

Osteguna 11

19:30: AMILOTX-B MULTZOKO HIRUGARRENA




SAILKAPENAK

A TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRAK	16	7	20	7
2. AMILOTX	15	7	16	3
3. A ZE FLAXA	14	7	20	7
4. LA JUVE	13	7	20	11
5. ANGIOZAR	11	7	13	10
6. SHAKTALE	7	7	19	16
7. PATXARAN TEAM	3	7	6	32
8. GUADEALEST	0	7	3	28

B TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREK OPEL/LAM	16	6	18	6
2. ARLOTEAK/OILAGORRA	14	6	21	5
3. MATXAKATEGI	10	6	12	5
4. XURRUPAK	8	6	4	4
5. EZINLEIKE	7	6	8	20
6. ALTOS PORNOS	6	6	9	9
7. FACUTA	5	6	6	8
8. PAOK	0	6	3	24

JOKOZ KANPO



JUAN LUIS
ETXANIZ

BILDURBAREK
OPEL/LAM

Zela doa txapelketa?

Espero zen bezela. Irabazi behar zutenek irabazi egin dute eta galdu behar zutenek galdu.

Ezustekorik izan da?

Ezustekoa A multzoan gertatu da. Angiozar oso ondo ibili da eta La Juve ere ondo ikusi dut. Gure multzoan, gauzak espero moduan joan dira.

Pozik tokatu zaizuen multzoarekin?

Gure multzoa bestea baino errezagoa dela uste dut. Ez dago bestean izan den berdintasunik.

Finalerako faboritorik?

Iazkoak aipatuko nituzke, hau da, Mongatxurra eta Bildurbarek Opel/Lam.

Finala Agorrosinen?

Horrela izan beharko litzateke. Futbol zelaiari kalterik egiten ez bazaio, egokiena Agorrosinen jokatzera izango litzateke.

Bildurbarek Opel/Lam?

Oso ondo gabiltza, behintzat ondo pasatzen dugu.

Zure jokorekin gustora?

4 gol sartu ditut eta ez nabil oso ondo. Futbola lagatzea eta azken urtean futbitoan aritzea asko igarri dut.

Arbitraiekin gustora?

Epailleek ondo arbitratzen dutela esango nuke. Gainera ez da batere erraza arbitratzea.

GOLEGILEAK

8 gol

Ibai Elorza. Angiozar.

7 gol

Iban Blanco. La Juve.

6 gol

Xabier Zangitu. Mongatxurra.

5 gol

Fernando Salinero. A Ze Flaxa.

Jabier Carrascosa. Arloteak/Oilagorra.

David Maestre. Amilox.

Nesken futbito txapelketa

EMAITZAK

BOST TABERNA-BOKAGE	0-1
POWER RANGERS-GU GEU	0-0
BOST TABERNA-POWER RANGERS	4-6
BOKAGE-BLUE STARS	0-2

PARTIDUAK

LARUNBATEAN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN

12:00: POTZU TA ZAPABURUAK-BOKAGE

16:00: BOST TABERNA-GU GEU

SAILKAPENA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. POTZU TA ZAPABURUAK	12	4	19	4
2. POWER RANGERS	10	5	12	12
3. BLUE STARS	6	5	9	14
4. GU GEU	4	4	6	6
5. BOST TABERNA	3	4	9	16
6. BOKAGE	3	4	1	7



Bost taberna taldea Naroa

Larreategi, Eva Manzanos, Ixone Ibarrola, Nuria Serna, Maider Irigorri, Intza Larrañaga, Marta Ruiz, Leire De Los Moyos, Idoia Navarro, Olga Sonsa eta Mirian Rodriguezek osatzen dute. Eibartarrak dira eta nahiko meritu dute astero Bergararaino futbitoan jokatzera etortzeko. Gainera maila ona erakutsi dute emaitzek asko lagundu ez arren.

GOLEGILEAK

6 GOL:

AINARA LETE (POTZU TA ZAPABURUAK).

4 GOL:

SAIOA BOLIBAR (BLUE STARS).

3 GOL:


GIOMAR FERNANDEZ (GU GEU).

NURIA SERNA (BOST TABERNA).

UXUE LAZKANO (POWER RANGERS).

Saturrarán-Deba piraguismo trabesia domekan

Bergarako Beti Busti piraguismo elkarteak 3. Saturrarán-Deba trabesia antolatu du datorren iganderako. Trabesian parte hartu nahi dutenak Beti Bustikoekin jarri daitezke harremanetan trabesia baino lehen edo, bestela, igandean bertan goizeko 10:15ak arte Saturraránek hondartzan izango dute izena emateko aukera. Trabesiaren irteera goizeko 10,30etan izango da Saturraránetik eta eguerdi alderako Debako hondartzara joango dira. Deban kaiak surf erakustaldia egingo dute eta ondoren parte hartzaileentzat hamarretakoa izango da.



Mongatxurrak taldea da futbito kopako txapeldun

Mongatxurrak taldeak irabazi du Labegaraietako Kopa Txapelketa joan zen zapatuan finalean Errotagaini 4 eta 3 irabazi ondoren.

Labegaraietako kiroldegira finala ikustera hurbildu zirenek partidu polita ikusteko aukera izan zuten. Partidua hiruna bukatu zen eta bi taldeek irabazteko aukera izan zuten. Luzapenaren lehen zatian Errotagainek izan zituen aukerarik onenak, baina Mongatxurrako atezainak geldiketa bikainak egin zituen. Bigarren zatian Mongatxurrak gola sartu zuen eta azkenean, 4 eta 3 irabazi zuen.

Bi taldeek argi erakutsi zuten onenetarikoak izan direla aurtengo denboraldian, ez baita ahaztu behar Errotagain ligako txapelduna izan dela.



Mongatxurrak eta Errotagain, kopa eta ligako txapeldunak.

Sari banaketa

Finala jokatu eta gero, sari banaketa egin zen. Xurruapak taldeak kiroltasunaren saria jaso zuen eta Juan Luis Etxanizek golegile onenarena (59 gol). Fac eta Guadelest taldeek D multzoko bi onenen sariak jaso zituzten; Soropotroak eta Ezinleikek C multzokoe-

nak; Jauja OH Zerezos eta A Ze Flaxak B multzoko onenenak eta azkenik, A multzoko sariak Errotagain eta Bar Canalejasentzat izan ziren.

Datorren urterako, A multzoan Jauja OH Zerezos, A Ze Flaxa eta Pagomendi izango dira talde berriak. B multzoan, be-

riz, Ozaeta, Soropotroak, Ortzi, La Juve, Ezinleike eta Kirolzaleak; C multzoan, FAC, Guadelest, Txipiron, Kayak Os Jardineiros eta PJS eta, azkenik, D multzoan Ari Ari, Shaktale, gehi txapelketan lehen aldiz izena ematen duten taldeak izango dira borrokan.

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LITAR ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

IKUSBI
ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK
Irala, 5 ☎ 76 53 09

TXINPARTAK

Espainiako
Igeriketa
Txapelketan

Eneritz Muguruza igerilari bergararra joan zen astean Malagan jokatu ziren Espainiako Igeriketa Txapelketan Euskadiko taldearekin izan zen. Lasterketarik irabazi ez arren, pozik agertu da lortutako emaitzekin, parte hartu zuen probetan denbora onak egin baitzituen. Aste osoan zehar, 100 metro krol eta 100 metro tximeletan bakarka eta errelebotan, 4x100 metro estiloetan, eta 4x100 metro krol eta 4x200 metro krol probetan jardun zuen. Datorren asteburuan Gipuzkoako txapelketan izango da eta 15 egun barru Euskadikoetan parte hartuko du.

Mendi irteerak

Pol-Polek eta Gorla Alpinok bi mendi irteera iragarri dituzte hilaren 14rako. Alde batetik, gazteentzat Aiako Haitzetara antolatu dute irteera. Izena emateko, astelehenetik ostegunera arratsaldeko 7:30etatik aurrera Pol-Poleko bulegoetara jo beharko da. Bestalde, nagusientzat Ibañeta-Donibane-Garazi egun guztirako irteera egingo da. Irteera goizeko 6:30etan egingo da Frontoitik. Pol-Poleko bulegoetan eman beharko da izena.

Iker eta Roman

Zazpimilako bat egitera Txinara

Iker Etxeberria eta Roman Laskurain mendizaleak Muztag Ata, izoztutako Mendien Aita euskaraz, deritzan mendira joango dira abuztuan. Mendiak 7.546 metro ditu eta Txinan dago. Horri buruz berba egiteko Romanekin izan gara, Iker kanpoan baitago.

- Zergatik aukeratu duzue Muztag Ata?

- Teknikoki ez du zailtasunik eta erraz samarra da. Eskiekin igo daiteke puntaraino eta horregatik aukeratu dugu: altu samarra delako eta teknikoki ez delako oso zaila. Orain bi urte Txina eta Pakistan artean dagoen La Ruta de la Seda egin nuen eta kasualitatez mendi hori bide horretan dago eta oso mendi polita da. Laku baten ondoren dago eta 7.000 metroko bi mendiz dago inguratuta.

- Noiz joango zarete?

- Abuztu osoan izango gara Txinan, halere mendia igotzeko 20 egun ditugu.

- Biok bakarrik zoazte?

- Ez, beste bi katalanekin joango gara eta Frankfurten italiar batzuekin elkartuko gara.

- Nola jarri zarete harremanetan jende horrekin?

- Agentzien bitartez. Halere, joan zen urtean mendia igotzeko asmoa nuen, baina besoa apurtu eta ezin izan nuen joan.

- Asko kostatzen da

horrelako espedizioa antolatzea?

- Material ona behar da altura horretan ibiltzeko. Gainera trabesia eskiekin igotzeko asmoa dugu eta materiala garesti iretzen da. Baina garestiena bidaiaria eta baimenak ordaintzea da.

- Fisikoki prestaketa berezia egin behar izan duzue?


- Bai, ahal denean Pirinioetara joan, astero mendira eta aintxintxika ere egin behar da. Garrantzitsuena fondoa hartzea da, altura horretan ezin da ibili azkar. Ordu asko ibili beharra dago eta horretarako garrantzitsuena fondoa da.

- Orain arte igo duzun mendirik altuena?

- Akonkagua mendia izan da igo dudana altuena. Ecuadorren Chimborazo eta Potopassi igo ditut. Afrikan Kilimanjaro ere igo dut eta Asia aldean trekkingak egiten ibili naiz. 7.000 m-tik gora lehen aldiz ibiliko naiz eta hor elur asko izango da eta pixkat gogorragoa da.


- Himalaya aldera joateko asmorik?

- 8.000 metroko mendi bat igotzeko 2 edo 3 hilabete behar dira eta horretarako denborarik ez daukat. Badira 8.000 metroko mendiak teknikoki ez direnak oso zailak, baina denbora behar da.



Muztag Ata, 7.546 metroko mendia, laku baten ondoren dago.

"Kataluniar eta italiar batzuekin batera joango gara"



Argazkia: Bittor Jimenez

Bergara K.E.ko infantilak

Garai batean Bergara K.E.ko infantilen futbol taldea osatzen zuten gaztetxoak dituzue goiko argazkikoak. Erretatu orain 14 bat urtekoa da eta gazteek 14-15 urte izango zituzten orduan. Javier Iturbe zen taldeko entrenatzailea eta bere agindupean infantil taldeak goi mailako futbola eskeini zuen Ipintzan. Denboraldia hasi baino lehen, nola ez, ohizko argazkia atera zuten Agorrosinen. Horra hor agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Julian Arriaran presidentea, Javier Iturbe, Jose Miguel Laskurain, Jagoba Larrañaga, Jose Luis Gomez, Bittor Jimenez, Igor Unzurrunzaga, Ion Aiastui, Juan Luis Izuskiza, Pepe Vallejo, Karlos Azkarate, Mikel Lazkano, Guillermo Miner, Karlos Rodriguez, Andoni Sagastume eta Enrike Zelaia.

Makurtuta: Juan Egaña "Pitia", Xabier Arregi, Mikel Uribesalgo, Mikel Eguren, Andoni Eguren, Paul Sanz, Aitor Salaberria, Ibon Odriozola, Asier Altuna, Juan Luis Arriola, Mikel Santos, Joseba Azkargorta, Martin Balzategi, Patxi Arriola eta Mikel Zubimendi.

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

LONBIDE

OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Kanpaina berezia

Heldu da!!

Autoverano 10



Azterketa tekniko
Doako diagnosis



Autoverano "10"
beherapen berezia



Errepide-mapa
doan

ONGI ETORRI!!

Orain abantaila gehiago kotxearen
aseguruan. %10eko **DESKONTUA**
POLIZA BERRIA EGITERAKOAN.



**Ez aukerarik
galdu. Balia
zaitez
liderraren
abantailaz!!**



MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA ☎ 76 28 79 / 76 18 80

**Ekintzak,
eta ez
berbak!!**

**Automobilen aseguruak
OHAR GARRANTZITSUA
EZ DITUGU PREZIOAK IGO!!**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:

**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ETXEMOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!